

SLALOM-eko ARAUDIA

INDARREAN 0218ko maiatzaren 8tik





Slalom-eko Araudia

AURKIBIDEA

1.go Art.- Xedea.....	2
2.Art.- Partehartzea.....	2
3.Art.- Kategoriak.....	2-3
4.Art.- Ontziak- Palak- Osagaiak.....	3-4
5.Art.- Lehiaketa forma.....	4
6.Art. Epaileak.....	4-6
7.Art.- Epaileen Betebeharrak.....	6-8
8.Art.- Lehiaketa Programa.....	8
9.Art. Izenemateen aldaketa eta baliogabetzeak.....	8
10.Art.- Irteera zenbakiak.....	8-9
11.Art.- Talde buruentsako argibideak.....	9
12.Art.- Segurtasun neurriak.....	9-11
13.Art.- Ibilbidea.....	11-12
14.Art.- Ibilbidearen Onespina.....	12
15.Art.- Entrenamenduak.....	13
16.Art.- Irteera.....	12-13
17.Art.- Irteerako tarteak.....	13
18.Art.- Irteera Nulua.....	13
19.Art.- Helmuga.....	13
20.Art.- Ateen seinalizazioa.....	13-14
21.Art.- Ateak igarotzea.....	14-15
22.Art.- Penalizazioak.....	15-16
23.Art.- Ateetako epaileen seinalizazioa.....	16
24.Art.- Ibilbidea libre uztea.....	16
25.Art.- Iraulketa eta uztea.....	16
26.Art.- Kronometrajea.....	16-17
27.Art.- Kalkulua eta emaitzen iragarpena.....	17-18
28.Art. Berdinketa.....	18
29.Art.- Kexak.....	18-19
30.Art.- Deskalifikazioak.....	19-20
Azken Xedapenak.....	20



1.go Art.- Xedea.

Slalom-eko lehiaketaren xedea, ur bizietako ibilbide bat, ateen zehazturikoa, akatsik egin gabe, ahalik eta denbora gutxienean zeharkatzea datza.

2.Art.- Partehartzea.

Txapelketa bat ospatu dadin, bi talde ezberdinetako 3 ontzik edo hiru taldek izena eman eta irteeran parte hartu beharko dute.

Txapelketa balioduna izan dadin, ez da beharrezkoa hiru ontziek edo taldeek helmugako lerroa zeharkatzea.

3.Art.- Kategoriak.

Banakakoak:

- Emakumezkoak K-1
- Gizonezkoak K-1
- Emakumezkoak C-1
- Gizonezkoak C-1
- Gizonezkoak C-2
- Emakumezkoak C-2
- C-2 Mixtoa

Partehartzaile batek banakako kategorian bi probetan baino gehiagotan ezin dezake parte hartu. C-2 Mixtoaren kasuetan, hirugarren izenemate gisa baimenduko delarik.

Taldeak:

- Emakumezkoak 3x K-1
- Gizonezkoak 3x K-1
- Emakumezkoak 3x C-1
- Gizonezkoak 3x C-1
- Gizonezkoak 3x C-2
- Emakumezkoak 3x C-2
- 3x C-2 Mixtoa

Partehartzaile bakoitzak, taldekako bi kategoria baino gehiagotan ezin dezake parte hartu.



Slalom-eko Araudia

Taldeak, soilik, banakako kategorian parte hartu duten lehiakideez osaturik egon litezke.

Lehiakide batek, banakako kategorian aritu ez den beste batetan bakarrik parte hartu ahali zango du, taldekako kategorian.

Bi manga egonez gero, lehenengo eta bigarren mangel artean taldekako lehiaketan, banakako kide bat ordezkatzeko dago.

Taldeko, ontzi bakarra ordezkatu daiteke. Aldaketa hau, Epaile Nagusiari idatziz jakinarazi behar zaio eta onartua izan.

4.Art.- Ontziak- Palak- Osagaiak.

Ontzien Espezifikazioak

Neurriak:

K-1:

Gutxiengo Luzera: 3,50 m.

Gutxiengo Zabalera: 0,60m

C-1

Gutxiengo Luzera: 3,50m

Gutxiengo Zabalera: 0,60m

C-2

Gutxiengo Luzera: 4,10m

Gutxiengo Zabalera: 0,75m

Ontzien gutxiengo pisua:

Ontziren gutxiengo pisua, ontzia lehor dagoenean zehazten da:

K-1: 9 kg

C-1: 9 kg

C-2: 15 kg

Ontzi guztiek, ertz bakoitzean 2cm-tako radio bat izan behar dute horizontalki eta 1cm-takoa bertikalki.

Ontzi guztietan, lemak debekaturik daude.

Ontziak, exigituriko neurriekin diseinatu behar dira.

Slalom-eko Araudia

Gila: Edozein objektu ateratzen dela, kaskoaren molde berean behar du egina egon, ez du 20mm baino gehiago izan behar, ez du 8mm baino estuagoa izan behar eta gutxienez 4mm-tako radioa izan behar du kanpoko ertzak.

Kayak-ak ontzi estaliak dira, bi orritako pala baten bidez propulstatu behar delarik. Partehartzaileak, bertan eserita doazelarik.

Canoa Kanadiarrak, estalitako ontziak dira, orri bakarreko pala baten bidez propulstatu behar delarik. Partehartzaileak bertan, belauniko doazelarik.

Ontziek, osagaiek eta arropak, marka komertzial, ikur, seinak eta hitz publizitarioak, izan ditzaketeelarik.

Publizitate material guztia, lehiakidearen identifikazioa eragozten ez duelarik ipini behar da, lehiaketaren garapenean eraginik sortu gabe.

Tabako eta graduazio altuko edari alkoholduen publizitatea debekaturik dago, hala nola, kirolaren sustapenarekin erlaziorik ez duten irudi, sinbolo, esaldiak zein, mezu politikoak.

5.Art.- Lehiaketa formatua.

Antolatzaileak lehiaketa formatu ezberdinak ospa ditzake, hala nola kanporaketak, final-aurrekoak eta finalak. Finalaurreko ordena, kanporaketako emaitzaren alderantzizkoa izango da. Eta finaleko irteera, finalaurreko emaitzaren alderantzizkoa izango da.

FIC-aren formatua duten txapelketetan ezarritik egongo da zenbat kirolari pasako diren final-aurrekoetara, lehenengo mangako emaitzen arabera.

Kanporaketetako bigarren mangako irteera zerrenda, dagokeneko sailkatuak izan diren kirolariak agertzen ez direlarik argitaratuko dira. Partehartzaileek, beraien kategorietan, finalerdietarako geratzen diren gainontzeko plazak eskuratzeko lehiatuko dute.

Kanporaketetan, bi manga dituzten kirolarien kasuan, bigarren mangako emaitza izango da bere amaierako emaitza.

Bigarren mangan sailkaturiko partehartzaileak, finalerdietarako irteera zerrendaren hasieran kokatuko dira, eta ondoren, lehenengo mangan sailkaturikoak.

Finalerdietara eta finalera pasako diren kirolari kopurua, hala nola, lehenengo mangaren ostean, zuzenean pasako diren kopurua, denboraldi hasieran argitaratuko dira.

Antolatzaileak, lehiaketa formatua aukera dezake: kanporaketa manga bakarra eta manga bakarra finalean. Progresioa alde aurretik argitaratu beharko delarik.

Finalerdi/ finaleko ibilbideak ate aldaketak jasan ditzake, oinarrizko ibilbidearekiko, orekatua izatearen baldintzarekin. (ikus 13.artikuluak).

Taldeko lehiaketan, txapelketa manga bakar batetara gutxitu liteke.



Slalom-eko Araudia

Salbuespenezko baldintzengatik lehiaketa bat baliogabetu behar bada, lehiaketa batzordeak eta epaile Nagusiak lehiaketako amaierako emaitzatzat hartu ditzakete, bere osotasunean ospaturiko azken fasea (kanporaketak edo finalerdiak).

6.Art. Epaileak

Slalom-eko lehiaketa bat, jatorri eta garrantziaren arabera, jarraian adierazten den epaileek gida dezakete:

Lehiaketa Batzordea: Slalom-eko lehiaketa orok, hiru kidez osaturiko Lehiaketa Batzorde bat izan behar dute. Hauek, slalom-eko epaile izan behar dute.

Lehiaketa Batzordeko kideak, Euskadiko Kanoe Federakuntzak izendatuko ditu. Besterik adierazi ezean, Lehiaketa Zuzendaria, Epaile nagusia eta ordezkari federatiboa izango dira.

Lehiaketa batzordeak, araudiak ez betetzearekin erlazionaturiko keak jasoko ditu eta azken erabakia hartuko dut, desadostasuna dagoen kasuetan.

Lehiaketa Batzordearen erabakiak, EKF-tzako araudiekin bat etorri behar dute,

Lehiaketa Batzordeak, partehartzaile bat kanpora dezakete, lehiaketa osorako.

Araudietan bildu gabeko eta lehiaketan zehar gerta litezkeen kontu guztien inguruan erabakiko du.

Botaketa batean berdinketa emanaz gero, Lehiaketa Batzordeko Lehendakaria da azken hitza duena.

Lehiaketa, jarraian adierazten diren epaileen gain-begiradapean ospatu behar da:

- 1.- Lehiaketa Zuzendaria.
- 2.- Epaile Nagusia
- 3.- Bideo epailea
- 4.- Epailearen laguntzailea
- 5.- Antolatzaile Teknikoa.
- 6.- Ateko Epailea.
- 7.- Ibilbide Trazatzailea.
- 8.- Irteera Epailea
- 9.- Ontziratze Epailea
- 10.- Helmugako Epailea
- 11.- Epaile Kronometratzaileak



Slalom-eko Araudia

12.- Emaizten Epailea

13.- Epaile egiaztatzailea

14.- Salbamendu Ofiziala

1etik 7rakoek, Slalom-eko epaile behar dute izan.

7.Art.- Epaileen Betebeharrak.

Lehiaketa Zuzendariak araudiaren arabera zuzentzen du lehiaketa. Gainera, batzarreko kide behar du izan, ibilbidearen onarpenerako.

Epaile Nagusiak EKF-tzako araudia eta lehiaketa beraren araudiaren arabera, lehiaketa behar den bezala garatzen dela ziurtatu behar du. Lehiaketako araudia interpretatu eta partehartzaile bat kanporatu edo irteera berri bat eman dezake.

Lehiaketa bati dagokion guztiaren (zigor eta denbora) inguruko epaiaren azken erabakia duena da.

Lehiaketako bideo ofiziala edo telebista dagoenean, bere informaziorako erabil dezake, kexen inguruko ebazpenen inguruko erabakiak hartzerakoan lagungarri izanez. Bere erabakia behin betikoa da, honela, emaitzak ofizialak izango dira, beraz, ezin izango da beste instantzietan erreklamatu.

Lehiaketa amaiturikoan, EKF-tzara dagokion akta prestatu eta bidaltzeaz arduratu beharko du.

Bideo Epaileak, ateetako epaileen ardura bera du. Baliabide gehigarri gisa arituko da, edozein ateetan, partehartzailearentzako erabaki zuzena izan dela zehazteko. Epaileak, sistematikoki, edozein partehartzaile, edozein ateetan berrikusi dezake. Epaile Nagusiari edozein erabakirekin ados ez egotearen berri eman behar dio, azken honek ateetako epaileen erabakiak aldatu bait ditzake, bideoak froga argi eta eztaba daezinak agertzen dituenean.

Epaile Nagusiaren Laguntzaileak Lehiaketako Zuzendariarekin eta Epaile Nagusiarekin egiten du estuki, eginkizun administratiboak izango ditu, batez ere epaileei dagokien prozedimentu eta eskemen inguruan. Kontsulta guztiak bilduko ditu eta Epaileen dokumentu guztien egiaztapen prozesua ikuskatuko du. Talde buruen kexen inprimakiak kudeatuko ditu administratiboki, kexan tartekaturiko epaile guztien informazioa eskuratuko duelarik, Epaile Nagusiak azken epaia eman dezan. Erabiliak izan diren inprimaki ofizial guztiak gordetzeaz arduratuko da.

Jarraian adierazten dena arduratzen da **Antolatzaile Teknikoa**:

Tokiko prestaketa eta lehiaketa osoaren garapenez.

Lehiaketarako beharrezkoa den ekipo tekniko guztiaren antolakuntza eta funtzionamenduaz.

Antolatzaile Teknikoak, Batzarreko kide izan behar du, ibilbidearen onespenerako.



Ateetako epaileek esleituriko ateen zigor eta epai zuzen baten arduradunak dira. Ate bateko zigorren epai ona burutzeko, ikuspuntu onena bilatu behar du.

Posible bada, alboetako ateetako epaileen oharrak kontutan izan beharko ditu. Soilik, Ateko Epaille bakar bat izendatuko da, Emaitzen bulegora eta ikusleei (Sektoreko igorpen Epaillea) zigorren berri emateko.

Ateekako epaileek, partehartzaile bati dagokion guztia argi idatzi beharko dute. Ateetako epaileek Igorpenaren arduraduna den Epaileri, modu ikusgarri batean seinalatuko dizkiote, partehartzaile bati ezarririko zigorrak.

Ibilbideko Trazatzailea, ibilbide originala diseinatzeaz arduratzenda eta, txapelketa osoan zehar, ibilbidea berdin mantentzeaz arduratzen da.

Ibilbideko Trazatzailea, atea egoki eusteaz eta gainontzeko instalakuntzetaz arduratzen da. Beharrezkoa izanez gero, prest egon beharko du, beharrezkoak diren egokitzapenak egiteko.

Ibilbideko onespenerako Batzarreko kide izango da.

Irteetako Epaillea, partehartzaileak dagokien zerrendako orden egokian egoteaz eta irteera emateaz arduratzen da.

Partehartzaile bati, irtetea galaraz diezaiokete, honakoagatik:

Segurtasun arauak ez betetzeagatik.

Dagokion unean eta deitua izan ondoren, irteeran aurkezten ez bada.

Egoki horniturik ez joateagatik edo irteera zenbakia ez eramateagatik.

Irteerako Epaillearen aginduak ez jarraitzeagatik.

Irteeran edozein anomalia egonez gero, Irteera Epailleak, berehala Epaille Nagusiari jakinarazi behar dio, eta partehartzaileak irteera hartzen duen edo ez erabakiko dute.

Ontziratze Epailleak, irteera gunearen arabera, ez da zertan derrigorrezkoa izango. Partehartzaileari irteera gunean kokatzeko abisatuko dio. Dagokion bularrekoa eta gainontzeko ekipoa zuzenak direla baieztatuko du. Arazoren bat egonez gero, irteera galaraziko lukeena, Irteera Epaileri eta Epaille Nagusiari jakinarazi beharko die, haiek erabakiko dutelarik ea partehartzaileak irteera hartzen duene do ez.

Aldez aurretik aipaturikoagatik galduriko denbora, partehartzailearen kontra joango da.

Helmugako epaileak partehartzaile batek ibilbidea noiz amaitu duen zehazten du, Irteera Epaillearekin elkarlanean.

Epaille Kronometratzaileak, denbora zehatza hartu eta emaitzen kalkulu bulegora bidaltzeaz arduratzen dira.



Slalom-eko Araudia

Emaitzen Epailea, Epaile Nagusiaren zuzendaritzapean, jasotako datu guztien, txapelketako emaitzak kalkulatu eta argitaratzeaz arduratzen da.

Epaile egiaztatzailea, txapelketan ontziek, salbamendu jakek eta kaskoek, araudiak ezartzen duena betetzen duela baieztatzen du..

Segurtasun epailea, bere salbamendu taldearekin batera, egoerak eskatutakoaren arabera, beraien ontzia utzi duten partehartzaileak edo lehiaketa ibilbidean zehar dagoen edozei erreskatatuko ditu. Salbamendu eta lehen sorospeneko ekipoa prest izan beharko du, edozein interbentziotarako.

Epaile batek, bi funtzio edo gehiago bereganatzea izango ditu.

Epaileek ezin izango dute, partehartzaile bati deitu edo edozein dela modua, aholku teknikorik eman ibilbidean zehar.

Edozein dela ere eginiko akatsa, Ateko Epaileak ezin du, partehartzailearen arreta deitu.

Txapelketako Zuzendari, Epaile Nagusi, Epaile Nagusiaren laguntzaile, Irteerako Epaile, Helmugako epaile eta Emaitzen Epaileen artean, komunikazio perfektu eta etengabekoa egon behar du.

Bideo epailea, hardware eta software-aren eta sistema osoaren funtzionamendu egokiaren arduraduna izango da. Bideoaren produkzioa zuzendu eta konpontzen du, Bideo epailearen exigentzia eta baldintza propioen arabera.

8.Art.- Lehiaketa Programa.

Gutxienez, lehiaketari hasiera eman baina 24 ordu lehenago, Klub partehartzaile bakoitzari, bukaerako zerrenda entregatu beharko zaio, partehartzaileen izenak eta dagokion klubak azaltzen direlarik.

Programaren antolakuntzan, jarraian adierazten diren printzipioak jarraitu beharko dira:

Banakako kategoriak, taldekakoak baino lehen ospatuko dira.

Programak, partehartzaileei kategoria bat baino gehiagotan parte hartzea ahalbidetu behar du.

Baldintza berezietan, kanporaketa mangak egun ezberdinetan ospa litezke.

Talde buruen gehiengoaren onespena izan gabe, ezin izango da aldaketarik egin.

9.Art., Izenemateen aldaketa eta baliogabetzeak

Aldaketak edo baliogabetzeak, talde buruen bileran zehar iragarri behar dira.

Izenematearen baliogabetzea behin betikoa da eta partehartzaile edo talde baten berizenematea debekaturik dago.

Izenematetan emaniko edozein aldaketa, Irteera Epaileari jakinarazi behar zaio, idatziz, gutxienez txapelketa eguneko lehenengo froga hasi baina bi ordu lehenago.



Slalom-eko Araudia

Partehartzaile baten partehartzea, Talde buruen bileran baieztatu behar da. Baieztatu gabeko izenemateak, irteera zerrendan baja emango zaie.

10.Art.- Irteera zenbakiak.

Antolatzaileek erraztu beharko dituzte bularrekoak, partehartzailearen aurrekalde eta atzekaldetik ikusgarriak izango direlarik.

Zenbakien marrek, 20cm-ko altuera eta gutxienez 2cm-ko zabalera izan behar dute.

Partehartzaileen gorputzean, modu ikusgarrian ipini behar dira.

C-2an, Brankako partehartzaileak darama zenbakia edo biek.

Partehartzaile bakoitza, bere zenbakiaren arduraduna da.

Bularrekoek, babesleen izenak erakus ditzakete.

11.Art.- Talde buruentzako argibideak.

Txapelketa hasi baina 5 ordu lehenago, Talde Buruak, jarraian adierazten diren puntuen inguruko argibideak jaso behar ditu:

Irteera ordenaren zerrenda.

Ordutegi zehaztua

Ibilbidea irekitzen den ordua.

Irteera ordua.

Irteera lerroaren kokapena.

Helmugako lerroaren kokapena

Irteeren arteko tartea.

Irteerako Epaileak erabilitako seinalea irteera emateko eta ibilbidea libre uzteko txilibitua izango da.

Epaile Nagusia eta lehiaketa bulegoa kokatuko diren lekuaren kokapena.

Ontzi kontrolerako ordua eta lekua.

Helmugatik, irteeraraino ontziak nola garraiatuak izan behar duten.

Entrenamenduari buruzko arauak.

Anti-doping kontrolerako lekua (beharrezkoa izanez gero).

Lehiaketa hasi baino lehen, ordu apropos batean, Talde Buruekin bilera bat izan behar da. Jarraian adierazten diren puntuak jorratuz:

Partehartzaileentzat argibide gehigarriak.

Izenemateen aldaketa edo/eta baliogabetzeak.

12.Art.- Segurtasun neurriak.

Ontzi guztiak ondoraezinak behar dute izan eta piraguaren muturreko ertz bakoitzean euskarri bat izan beharko dute, Brankatik eta popatik 30cm-ra gehienez.

Euskarritzat hartzen dira: sokazko lazoa, soka euskarriekin edo ontzia zeharkatzen duen soka, brankatik popara, edo ontziaren eraikuntzako zati integral bat osatzen duen euskarri bat.

Euskarriek, momentu oro, eskua erraz sartzea ahalbidetu behar du, ontzi heldu ahal izateko.

Erabilitako materialak, gutxienez 6mm-tako diametroa izan beharko du, edo gutxienez 2x10mm-tako ebakidura.

Euskarriak itsastea debekaturik dago.

Partehartzaile bakoitzak, segurtasun kaskoa, behar bezala, kokots azpian loturik eta salbamendu jaka eraman behar dituzte jantzirik. Egoera onean egon behar dutelarik biek.

Salbamendu jaka eta kaskoak ez dute inolako aldaketarik jasan behar izan. Fabrikatzaile ezaguna eta materialen kalitatea eta industriako adiera ohikoak bermatzen dituenak.

Salbamendu jaka, ISO 12402-5 (50.maila) arau industrialara bete behar du edo FIC-ak erregistratu ditzakeen, eta beste edonolako arau nazionala, prestazio berberak bermatzen dituenak.

Txapelketa batean, salbamendu jakaren flotagarritasuna, 6.12kg-ko altzairu herdoilezin edo baliokidea den beste metal batzuekin egiaztatuko da, ur gainean mantendu beharko delarik salbamendu jaka.

Segurtasun kaskoa, EN 1385 araua bete beharko du eta FIC-ak erregistratzea izango du.

Kasko bakoitzak jarraian adierazten den informazioa, erabiltzailearentzat era ikusgarrian markatu beharko du eta bere balizko bizitza guztian zehar, era ikusgarrian mantendu, kontrolpean mantendu ahal izateko:

- Europa arauaren zenbakia
- Fabrikatzailean izena edo identifikazioa
- Fabrikazio data
- “ur bizietako piraguismorako kaskoa” izendapena

Antolatzaileei gomendatzen zaie, txapelketa hasi aurretik eta ondoren, salbamendu jaka eta ontziak egiaztatzea.



Slalom-eko Araudia

Zalantza izanez gero, ontziaren flotagarritasuna baieztatu beharko da, urez betea dagoenean, ur gainaldean orekaturik flotatu beharko duelarik.

Partehartzaileek, edozein momentutan piraguataz libratu ahal izan behar dute.

Segurtasun neurriak ez betez gero, Irteerako Epaileak eta Epaile Nagusiak, beraien betebeharrekin bat, partehartzaile bati irteera galeraz diezaiokete.

Edozein kasutan, partehartzaileek beraien erantzunkizupenean lehiatzen dute, ez EKF-tzak, ez antolatzaileak, ez dira gerta litezkeen istripuen edo ibilbidean gertaturiko kalteen erantzule izango.

13.Art.- Ibilbidea.

Ibilbideak guztiz nabigagarria behar du izan eta C-1 eta C-2ko partehartzaileei, baldintza berdinak erreztu, eskuina edo ezkertiarra izan arren.

Ibilbide hobezinak honakoak izan behar ditu:

- 1) Gutxienez, ate konbinatu bat, partehartzaileari atea igarotzeko aukera bat baino gehiago eskainiaz.
- 2) Norabide eta mugimendu aldaketak maiz, korrontea aprobetxatuz eta uraren zailtasun teknikoak (olatuak- ur-lasterrak- zurrunbiloak).

Ibilbideak gutxienez 200m-ko luzera izan behar du, irteera lerro eta helmugako lerro arteko tartea neurtuz (erdiko lerrotik neurtuz), ibilbidearen luzera maximoa 400m.

Ibilbidea taxutzen dutenentzat, ibilbidea K-1 gizonezkoentzat 95segundu inguruan burutu beharko lukete.

Baita ere, partehartzaileek, berotzeko eta suspertzeko eremu nahikoa izan behar dute. Eremuak, kategoria guztientzat irekia behar du izan. Eta Irteera zein helmugako lerroei ez die eragin behar.

Ibilbideak, oztopo naturalak edo/eta artifizialak izan behar ditu.

Talde kreditatuek ibilbidera sarrera doan izango dute entrenamendu ofizialetan eta lehiaketa programaturik dagoen egunetan.

Ibilbideak gehienez 25 ate izan behar ditu eta gutxienez 18 ate, horietatik gutxienez 6 Remonte atea izan behar dutelarik.

Epaile Nagusiarekin bat etorritik, irteera eta helmuga, entrenamendu ofizialak hasi baino lehenago finkatu behar dira.

Azken atea eta helmugako lerroaren arteko distantziak ez du 15metro baino gutxiagokoa izan behar, ezta 25 metro baino gehiagokoa.

Antolatzaileek, lehiaketa bera edo partehartzaileari inolako eragozpenik eragin gabe, lehiaketa ospatu ahal izango den ibilbide bat aukeratu beharko dute. Ateak aurkezpen egoki batez eta argi adierazirik (makilen kolore eta ateen zenbaki bidez) egon behar



Slalom-eko Araudia

dute eta nahikoa leku egon behar du, zigorren epai egokia egin ahal izateko, inolako zalantza posiblerik gabe.

Lehiaketa ospatzen den bitartean, Epaile Nagusiak ur mailan aldaketa esanguratsu bat nabaritzen bada eta hori zuzentzea posible bada, lehiaketa gelditzea izango du, ur baldintzak berrezarriak izan diren arte.

Lehiaketa ospatzen den bitartean, ibilbidearen jatorria edo diseinua aldatzen badira, soilik Epaile Nagusiak baimendu dezake eragindako ateetan, kokapen aldaketa burutzea.

Antolatzaile Teknikoak zein Epaile nagusiak, ibilbidea Taxutzen dutenei ibilbidearen diseinu eta ateen montajearen inguruan aholkatu diezaiekete.

Antolatzaile Teknikoak, ibilbidea Taxutzen dutenei, ur mailaren, atea ipintzeko baldintza teknikoari eta lehiaketa guneko zonaldeari dagokion 1:1000 eskalako mapa bat erraztuko die.

14.Art.- Ibilbidearen Onespena.

Ibilbidearen Erakustaldirako ontziak honakoak behar dute izan:

Gizonezko C-1 Eskuin bat.

Gizonezko C-1 Ezkertiar bat.

Emakumezko C-1 Eskuin bat.

Emakumezko C-1 Ezkertiar bat.

Bi K-1 Gizonezko.

Bi K-1 Emakumezko.

Bi C-2, Branka eskuina eta Branka Ezkertiarra.

Edozein kasutan, kategoria bakoitzean gehienez bi ontzi izango dira.

Erakustaldia zatika behar du izan, erakustaldiko ontzi guztiek, jatsiera oso bat burutuko dutelarik amaieran.

Ibilbidearen nabigagarritasuna, Onespen Batzarra Antolatzaile Tekniko, Epaile Nagusi eta Ibilbidearen Trazatzaileek osaturik, zehaztu eta onetsiko dute.

Ibilbidea ez bada onargarria (ibilbidea edo ibilbidearen zati bat bidegabekoa, arriskutsua edo egoki zeharkatzea ezinezkoa bada) aurreko parrafoan aipaturiko pertsonak izango dira horren inguruan erabaki bat hartzeko erantzule.

Erdiak baino gehiagok eskatzen badute aldaketa bat, ibilbideak aldatua behar du izan. Kasu honetan, ibilbide berria proposaturiko aldaketekin, Onespen Batzordeak ipini beharko ditu.

Bozketaren ondoren, ezin izango dira aldaketa gehiago egin.



Slalom-eko Araudia

Entrenamendu ofizialak egonez gero, ibilbidea behin betikoz onartua izan eta gutxienez, hoge minututara emango da lehenengo irteera.

15.Art.- Entrenamenduak.

Antolatzaileen irizpideen arabera, nazioarteko lehiaketetan, ibilbide osoan zehar ospatu ahal izango dira. Entrenamenduak ez dira derrigorrezkoak.

16.Art.- Irteera.

Irteerak, korrontearen alde edo aurka izan litezke. Irteera eman arte, Irteerako Epailearen laguntzaileak, ontzia heldu ahal izango du eta irteera posizioan mantendu, irteera agindua eman arte.

Irteeran, ontziak geldik egon behar du.

Taldekako probetan, ontzi guztiek geldik behar dute egon, ontzietako batek irteerako kronoa aktibatu beharko du lasterketan. Taldeko edozein ontzik egin dezake aktibazioa.

Edozein kasutan ere, Irteerako Epailearen kokapen zein bestelako esan eta argibide guztiak bete beharko dituzte partehartzaileek.

17.Art.- Irteerako tarreak.

Banakako kategorietan, irteerak gutxienez, 45 segunduz egon behar dute aldenturik.

Taldekako mailetan, irteerek gutxienez 90 segunduko aldea izan behar dute, bat eta bestearen artean.

18.Art.- Irteera Nulua.

Soilik Irteera Epailea dago baimendua irteera baliogabe bat noiz eman den esatera. Eta partehartzaileari abisatzeaz dagokion seinalearen bidez.

Irteera Epaileak erabakiko du eta bigarren irteera bat ematen dion eta Epaile Nagusiari jakinaraziko dio.

19.Art.- Helmuga.

Helmugako lerroa bi alboetan, argi, egon behar du seinalatua.

Partehartzaile batek ibilbidea osatu du, helmugako lerroa gorputzarekin zeharkatzen duenean. Partehartzaile batek ezin du behin baino gehiagotan helmuga lerroa zeharkatu, manga horretan, deskalifikatua izan liteke.

Taldekako proban, 3 ontziek zeharkatu behar dute helmugako lerroa, gehienez, beraien artean 15 segundoko tarte izanik. Bestela, 50segundutako zigorra jasoko dute.

Partehartzaile batek, Helmugako Epailearen epaiaren arabera, helmugako lerroa iraulita zeharkatzen badu, edo utzi badu, deskalifikatua izango da, manga horretan.

20.Art.- Ateen seinalizazioa.



Slalom-eko Araudia

Ateeak zintzilikaturiko bi (2) makilez osaturik daude, eraztun berdeak eta eraztun txuriak dituztelarik korrontearen alde zeharkatu behar diren atea. Eta eraztun gorriak eta eraztun txuriak, erremonte ateentzat, eta beti, beheko aldean, eraztun txuri bat, eraztun bakoitzak 20cm neurtu behar dituelarik.

Makil bakoitzak, 2cm-tako zabalera minimoa eta 2,5cm-tako zabalera maximoa duen marra izan behar du behealdean.

Bi makiladun ateen zabalera, gutxiengo 1,2m-tatik gehienezko 4 m tara bitartekoa izango da, bi makilen artean. Makilek borobilak behar dute izan, 1,6 eta 2 metro bitarteko luzeerarekin eta 3,5 eta 5cm bitarteko diametrodunak. Haizeak ez mugitzeko adinako pisua behar dute izan.

Makilen ur gaineko altuerak, negoziatorako baldintza zuzenak ahalbidetu behar ditu, ibilbidea taxutzen dutenen helburua betetz. Ibilbidea Taxutzen dutenen eta Epaille Nagusiaren adierazpenen arabera, makilaren zatirik baxuenak, ur gainetik 20cm-tara geratu behar du gutxi gora-behera eta makila ezin du urak mugitu.

Ateen doikuntza sistemak erraza eta eraginkorra izan behar du, ate bakoitzeko makil bakoitzaren doikuntza ahalbidetu behar duelarik.

Ateak, zeharkatu behar diren ordenean izan behar dute zenbatuak.

Zenbakien panelek 30cm x 30cm eurtu behar dituzte. Zenbakiak bi aldeetatik egon behar dute idatziak paneletan, Atzekaldea horia edo txuria delarik eta zenbakia beltzez idatzirik. Zenbaki eta letra bakoitzak 20cm izan behar ditu altueran eta 2cm lodieran.

Dagokion zentzuaren kontrako aldean panelean, marra diagonal gorri bat margotzen da, beheko ezkerreko angelotik, goiko eskuinekoa igoko dena.

Epailen kokagunetik, zenbakiak ikusgai egon behar dute, beraien epaia eman ahal izateko.

21.Art.- Ateak igarotzea.

Ate guztiak, zenbakien hurrenkeraz igaro behar dira.

Ate guztiak, paneletako zenbakiak ezarritako norabide egokian zeharkatu behar dira.

Baldintza guztietan, atearen planoan, makil baten behekaldeko kanpoko ertzetik, beste makilaren ertzeraino doan lerroak definituko du. Atearen planoan, bi makilen beheko, kanpoko ertzetik, makil batetik bestera, ibaiaren ibilguan bertikalki proiektaturiko lerroak definituko du.

Ate bat igarotzen hasten da: Ontziak, gorputzak edo palak atearen makil bat ikutzen duenean. Partehartzailearen buruak (C-2-an bi partehartzaileetako batek) bi makilen arteko lerroa zeharkatzen duenean.

Ate bat igarotzen amaitzen da, hurrengo atea zeharkatzen hasitakoan edo helmugako lerroa zeharkatzen denean.

Ate bat egoki zeharkatu dela pentsatzeko honako baldintzak bete behar dira:



Slalom-eko Araudia

Partehartzailearen edo partehartzaileen buru bi makilen arteko lerroa, atea zeharkatu beharreko norabide egokian eta ibilbidearen plano egokian egiten duenean.

Aldi berean, ontziaren zati batek eta partehartzailearen buru osoak, bi makilen arteko lerroa zeharkatu beharko dute.

22.Art.- Penalizazioak.

0 Puntu-ko zigorra= akatsik gabe igaroz gero. Gorputzak, ontziak edo palak ez du makilik ikutzen.

2 puntu-ko zigorra= atea egoki zeharkatu bada, baina ateko makil bat edo biak ukitu badira.

Makil bat edo biak, bi bider edo gehiagotan ikutzen bada/badira, penalizazioa bakarra da.

50 puntuko zigorra:

Atea ikutzea (makil bat edo biak) eta egoki ez igarotzea.

Ate bat nahita ikutzea, bertatik igarotzea ahalbidetzeko, nahitasuna epaitzeko irizpideak bi izango dira: Atea igarotzeko kokapen egokian ez egotea edo/eta partehartzailearen ustekabeko ekintza (atearen planoan nahita irekitzea) atea zeharkatzea ahalbidetuz.

Partehartzaile baten buruak(C-2en kasuan, partehartzaileetako bat) atearen lerroa iraulirik zeharkatzen badu. (25.Artikuluaren Irailaren definizioa ikusi). Ez badu/te, hurrengo atea zeharkatu aurretik, partehartzaile/ek berriro, zuzenki atea igarotzen.

Partehartzailearen buruak, ate bat igarotzea, ibilbidearen planoan azaldutako norabidearen kontrako norantza, planoan mozten badu. Ez bada, lehiakidea/ek, berriro, atea behar bezala igarotzen hastea, hurrengora pasa aurretik.

Ate bat ez egitea: Ate bat ez egitea dela ulertuko da, bertatik igarotzen ez denean, hurrengo atea igarotzen hastean edo helmugako lerroa zeharkaturikoan.

Taldek batek helmugako lerroa ez badu zeharkatu, 15segunduko tartean.

Buruaren zati batek(C-2an, lehiakide batek edo biek) lerroa zeharkatzen badu norantza zuzenean, ontziaren zati bat bera ere iragan gabe edo bai, ez badu/te, berriro atea zuzenki zeharkatzen, hurrengo atea zeharkatu aurretik.

Ontzi bat edo gorputz zati batek (burua izan ezik), ateko makil azpitik iragan eta ukitu ez badu, ez da zigortuko.

Ate bat igarotzeko behin eta berriz buruturiko ahaleginak ez dira zigortuko, ateko makilak ukitu ez badira, beti ere, parte hartzailearen buruak, kontrako norantzan, bi makilen arteko lerroa iragan ez badu.



Slalom-eko Araudia

Ate bateko gehienezko zigorra 50 puntu dira.

Zalantzaren- onura beti partehartzaileari emango zaio.

23.Art.- Ateetako epaileen seinalizazioa.

Seinalizazio diskoa, ikusleei zigorren berri emateko erabili ohi dira.

Disko horia erabiltzen da, beltzez 2 zenbakiez markaturik eta disko gorria, 50 zenbakiarekin markaturik. Zenbakiak beltzen joango dira, eta hurrenez hurren, bi alboetan.

Seinalizazioa, jarraian adierazten den araudiaren arabera burutuko da:

Atea behar bezala igarotakoan ez da inolako seinalerik burutuko.

Atea igaro izana, zigorra dagokionean, disko horia edo gorria (2 edo 50 zenbakiduna, dagokion zigorraren arabera) finko mantentzea.

24.Art.- Ibilbidea libre uztea

Partehartzaile bat, beste batek aurreratua izan bada, lehengoak aurreratu dionari pasatzen utzi beharko dio, Ateko Epaileak behin eta berriz txistuka egiten badio.

Aurreratzen ari den partehartzaileak bere ibilbidea egoki burutzen saiatu behar du. Ate bat iragan ez duelako aurreratzen badu beste parte hartzaile bat, ezin izango du inoiz beste partehartzailea oztopatu.

Partehartzaile bati, beste batek enbarazu egin badio, manga errepikatzea izango du, Epaile Nagusiak baimenduz gero.

25.Art.- Iraulketa eta uztea.

Partehartzaile bat Irauli egin dela pentsatuko da, partehartzailearen burua ur azpian dagoenean guztiz.

Uztea egon dela pentsatuko da, ontzia iraulia dagoenean, eta partehartzailea (edo C-2ko kideetako bat) ontzitik at dagoenean guztiz.

Eskimotajea ez da iraulketatzat hartuko. Taldekako lasterketetan, talde bereko kideak elkar lagundu daitezke eskimotajean.

26.Art.- Kronometrajea

Lasterketa baten denbora honela neurtzen da:

Lehiakidearen gorputzak, gorputzeko dispositibo elektronikoak edo lehiakidearen ontziak irteera lerroa zeharkatzen duen ezkeroztik, helmugako lerroa, gorputzak, gorputzeko edo ontziko dispositibo elektronikoak (C-2aren kasuan, lehenengoaren gorputzak lerroa zeharkatzean) helmugako lerroa zeharkatzen duenerarte.

Taldekako lasterketetan, lehenengo ontziak irteera lerroa zeharkatzen duen ezkeroztik, helmugako lerroa zeharkatzen duen azken ontziraino kalkulatu da denbora.



Slalom-eko Araudia

Manga baikitzeko kronometrajeak zehatza behar du izan eta gutxienez, segunduaren ehunekora egokitu, eta emaitzak segunduaren ehuneneko batera urbilduz eman beharko dira.

27.Art.- Kalkulua eta emaitzen iragarpena.

Emaitzak kalkulatzeko jarraian adierazten den formula erabiltzen da:

Mangarik onenaren denbora segundotan + zigorrak segundotan= Emaitza.

Manga bakoitzeko banakako puntuazioaren adibidea:

Mangaren denbora: $2'20''82 = 60+60+20.82=140.82$

Zigoren puntuak: $2+2+50=54.0$

Guztira Puntuak: $=194.82$

Taldekako lasterketa baten puntuazioaren adibidea:

Lehengo ontziaren irteera eta azken ontziren helmugaratze arteko denbora:

Mangako denbora: $2'20''82 = 140.82$

1.go ontziari dagokion zigoren puntuak= 104.0

2.ontziari dagokion zigoren puntuak=154.0

3.ontziari dagokion zigoren puntuak=56.0

Guztira Puntuak: $=454.82$

Partehartzaile baten edo talde baten mangako emaitzak ezagutu bezain pronto, irteera zenbakia, zigorrak eta mangako denbora, iragarriak izan beharko dute eta ondoren, dagokion lekuan argitaratu, kexak aurkezteko epea amaitu bitartean.

Jarraian agertzen diren laburdurak emaitzetan erabiltzen dira:

AB: Uztea

NP: Ez du partehartu

DESC-M: Deskalifikatua manga batean.

DESC-C: Deskalifikatua lehiaketa guztitik.

NP, AB eta DESC.M kasuetan, penalizazioan 999 agertuko da emaitzak egiten dituztenentzat. DESC-C kasuetan, emaitzetan ez da deskalifikatzen.

Manga bakarra duten kirolariak, normaltasunez sailkatu behar dira.

Irteera hartu ez duten kirolariak ez dute sailkatuak izan behar.



Slalom-eko Araudia

Kirolari bat edo talde bat AB izango da emaitzetan, ontzia guztiz utzi duenean edo helmugako lerroa iraulita igarotzen duenean.

28.Art. Berdinketa.

Bi partehartzaile edo taldek edo gehiagok emaitza bera izanez gero mangarik onenean, beste mangako puntuazioak argitu beharko du; eta ezberdintasunik ez badago oraindik, kasu horretan partehartzaileek postu bera erdietsiko dute.

Kanporaketa mangetan partehartzaileek berdindu egiten badute, finalerdi edo finalera pasako dira berdinduriko partehartzaileak.

Bi partehartzaile edo gehiagok Urrezko domina elkarbanatzen badute, ez da zilarrezko dominik emango.

Hiru partehartzaile edo gehiagok Urrezko domina elkarbanatuz gero, ez da zilarrezko ez eta brontzezko dominarik banatuko.

Bi ontzik edo gehiagok zilarrezko domina elkarbanatuz gero, ez da brontzezko dominarik emango.

Bi ontzik edo gehiagok brontzezko domina elkarbanatuz gero, denei brontzezko domina emango zaie.

29.Art.- Kexak.

Talde buruek, banakako emaitzak argitaratu ondoren, 5 minutu izango dituzte zigor eta denboren inguruko kontsulta burutzeko, kontsulta hauek dohainik dira.

Epaile Nagusiak kontsultaren ebazpena emateko, informazio guztia berrikusiko du. Epaile Nagusiaren erabakia behin betikoa eta apelaezina izango da.

Klub batek, beste klub baten aurkako kontsulta bakarra burutu dezake txapelketa guztian zehar. Ebazpenak emaitzak aldatuz gero, kontsulta burutu duen klubak, ez du kontsulta berri bat egiteko eskubidea galtzen.

Kontsulta baten ebazpena baikorra denean eta emaitzei eragiten dienean, eragiten dien klub guztiei, horren berri eman beharko zaie.

Txapelketa ospatzen den bitartean, irregulartasun argiak eman badira, esaterako: ur mailaren aldaketak, ibilbidean objektu arrotzen presentzia, ateen kokapen aldaketa, aurreratzeak, baldintza meteorologiko txarrak. Talde buruak kexa bat aurkez dezake, beti ere, kexatzeko asmoa duela adierazi badu, behin emaitzak ez-ofizialak argitaratu eta 5minutuko tartean, Kexa Bulegoan.

Talde buruak inprimaki ofizialetan idatzi beharko du kexa. Emaitza ez-ofizialak, Epaile Nagusiak sinaturik, argitaratu eta 20 minutuko tartean aurkeztu beharko duelarik kexa.

Epaile Nagusiak eta Kexa bulegoak, kexa inprimakia onartuko du, 20€ko tasa batez lagundua badator. Tasak itzuliak izango dira, kexa aintzakotzat hartua izan bada. Kexa ez bada haintzat hartzen edo Talde Buruak kendu badu, tasak ez da itzuliko.



Slalom-eko Araudia

Epaile Nagusiak kexaren zilegitasuna ebaluatuko du, tartean dauden epaileen galdetuko die, bideo ofiziala ikusiko du, beharrezkotzat jotzen badu eta idatziz jakinaraziko du bere erabakia zuzenean eragiten dien Talde buru guztiei.

30.Art.- Deskalifikazioak.

A) Proba bat

Partehartzaile batek, araudiak ezarritako baldintzak betetzen ez dituen ontzi edo ekipazio batekin hartzen badu irteera, Epaile Nagusiak manga horretarako deskalifikatu dezake (DESC-M).

Lehiakide batek kanpoko laguntzak onartzen badu, Epaile Nagusiak manga horretan deskalifikatzea izango du (DESC-M).

“Kanpoko laguntzat” ulertzen da honakoa:

Kanpotik jasoriko laguntza guztia bai lehiakideak edo bere ontziak.

Lehiakideari ordezkoko pala edo galdu izandako kasuetan pala originala, eman, pasa edo jaurtitzea.

Lehiakidea bera ez den beste edonork ontzia mugitu, bultza edo gidatzea.

Lehiakideei jarraibideak ematea aparatu elektro-akustiko edo irrati-telefonoen bitartez (adibiz. Irrati-telefonoa lehiakide eta beste edozein pertsonen artean).

Taldekako lehiaketan, bere ontzia uzten (ikus 25.Art.) badu lehiakide batek, gainontzeko taldeak ezin izango du, beste aterik igaro (DESC-M).

Lehiakide batek helmugako lerroa, bi eskuak palan jarrita ez izanez gero, eta palarekin gorputzarekin baina lehenago zeharkatu nahi badu, Helmugako Epailearen epailaren arabera deskalifikatua izango da. (DESC-M). (Ikusi 26.Art.).

Modu irregular batez irabazten saiatzen den partehartzailea, araudia errespetatu gabe, edo bere baliozkotasunaz protesta egiten duen partehartzailea, lehiaketan deskalifikatua izango da.

Lehiakide bat, aurrez ezarritako ordutegirekin bat etorriaz, irteera hartzeko prest ez dagoenean, bere arduragabekeriagatik izan bada, manga horretan deskalifikatua izango da, Epaile Nagusiagatik. (DESC-M).

Kasu guztietan, lehiakideek, irteeretan ezarritako prozedimenduak eta irteerako argibide bereziak jarraitu beharko dituzte edo deskalifikatuak izango dira. (DSQ-M)

B) Proba guztirako

Lehiakide batek lehiaketa era irregular batean, araudia ez errespetatuz edo bere baliotasunaz kexatuz, lehiaketatik deskalifikatua izango da (DESC-C).



Slalom-eko Araudia

Partehartzaile bat, beste pertsona baten ekintzagatik, araudia ez betetzera behartua ikusten bada, Lehiaketa Batzordeak erabakiko du, lehiaketatik deskalifikatua izango den edo ez. (DESC-C).

Edozein partehartzaile edo epaileren jokaera lehiaketa behar bezala garatu eta orden onaren kaltetan arituz gero, Epaille Nagusiak ohartaraziko die, Lehiaketa Batzordeari jakinaraziz, eta azken honek honen inguruan erabakiko du. Jarrera berdinarekin jarraituz gero, deskalifikatua izan liteke lehiaketatik. (DESC-C).

Lehiaketa ondoren deskalifikatzeko dopaje edo hautaezintasuna dela eta:

Lorturiko emaitza guztiak eta eragiten dieten ontzien sailkapenak ezabatzea.

Horren arabera, emaitzak birkalkulatu.

Azkenik, emaitza guztien, laburpenen eta trofeoen birbegiraturiko bertsioa argitaratu.

Azken Xedapenak.

Araudi honek aurreikusten ez dituen egoera guztiak, Euskal Kanoe Federakuntzako Lehiaketetako Araudi Nagusi eta Teknikoa aplikatuko da.

Araudi honek argitzen ez duen kasuetan, R.F.E.P.-ren eta F.I.C.-ren araudia aplikatuko da.

Araudi hau Eusko Jaurlaritzako Kultura-Gazteria eta Kiroletako Departamentuak onartzen duela jakinarazi eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.